

1997ko URRIAREN 30eko URJENTZIZKO BILKURA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamazazpiko urriaren hogeitamarrean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Zinegotziak ez dira agertu; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Urjentzizko Bilkuran bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- URJENTZIZKO BILKURARAKO ARRAZOIA

Alkateak, hitza harturik dio: Tratatu nahi den gaia benetan garrantzi handi eta presazkoa denez, Bilkura honetan, urjentziz gai hau tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

2.- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

Tolosako Udaleko Alkate Lehendakari Jaunaren aldetik, idazkia igorri da; bertan adierazten denez, Mankomunitate bakarra eratzeko izandako elkarrizketen ondorioz, Tolosaldeako Mankomunitateko Estatutuen Proiektua igorri da, eta, horrela, horiek Udal honen eraginpean geratuko dira, hain zuzen ere, Udal honek proiektuan parte hartuko duen erabakitzeke.

Era berean, aldeko borondatea erakutsiz gero, dagokion erabakia 97-10-31 baino lehen ziurtatu behar dela jakinarazten da, data horretatik aurrera erabakia GAOn argitaratu dadin eta Batzar Eratzailerako deialdia luzatu dadin.

Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 44. artikuluan xedatutakoa (non Udalerriei beste Mankomunitate batzuekin elkartzeko eskubidea aitortzen zaien) kontuan izanik.

Tolosaldeako Mankomunitateko Estatutuen Proiektua ikusita.

Apirilaren 18ko 781/1986 Lege Errege Dekretuaren 54. artikuluan xedatutakoaren arabera igorritako Idazkariaren txostena ikusita.

Horren aurrean, Udalbatzak honako hau erabaki du, aho batez, (zeinak aipatu 7/1985 Legearen 47.3 artikulua b) atalean adierazten den Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoa ordezkatzeko duten)

- 1.- Estatutu Proiektuaren 1. artikuluan adierazitako Udalerriek osatuta eta 11. artikuluan adierazitako helburuekin Tolosaldeako Mankomunitateko eraketa eta partehartzea erabakitzea.
- 2.- 1997ko uztaileko Mankomunitatearen Estatutuen Proiektua onartzea.
- 3.- Udal honek soilik Hiri Hondakin Solidoen Tratamendu eta Bilketa Zerbitzuan parte hartzeko asmoa duela adieraztea.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko bederatzit'erdia direnean.